

ZURRIOLA Ikastola



HAUR HEZKUNTZA-2 URTE

1. SARRERA

Haurtzaroa oinarrizko garaia da, orduan ezartzen baita gerora ere izango den pertsonaren izatea. Hau jakina zen, baina azken urteetan, zientzian oinarrituz, ikerketek ere hori baieztatu dute.

Hezkuntzaren lehen etapa honen xede nagusia haurraren garapen osoa bideratzea da, ikaskuntza aktiboa eta autonomia baimenduz, eta jolasean oinarrituz. Haurra izango da bere bidearen protagonista, eta heldua umearen bidelagun.

Haurraren garapen osoaren ikuspegitik, haurra ulertzeko moduaren oinarrizko printzipio metodologikoak dira ondorengoak:

- **Errespetua haurraren izate osoari.** Haurra bizitzaren lehenengo unetik pertsona aktiboa, bizia, sentikorra eta harbera da. Haur bakoitzak bere garapen-erritmoa dauka.
- **Konfiantza haurraren berezko garapen-ahalmenari.** Bere jarduera autonomia eta erritmo biologikoak errespetatuz konfiantza izan bere gaitasunetan, haurra bere garapenaren protagonista dela onartuz.
- **Haurraren ziurtasun fisikoa eta emozionala bermatu** behar dugu, baldintzak eskainiz eta bere beharrekiko sentikortasuna adieraziz.

Hau guztia honela izanik, hezitzaileak haurraren ondoan egon behar du, bere bidelagun izan behar du. Helduak haurrari segurtasuna eman behar dio, egiten dituen behaketetan oinarrituz testuinguruak sortu behar ditu haurrak era autonomoan esploratzeko, esperimentatzeko eta jolas librean aritzeko.

1. INTRODUCCIÓN

La infancia es una etapa fundamental para la vida, ya que se establecen las bases que determinarán el desarrollo de la personalidad del niño-a. La vida del niño-a, en gran medida, dependerá de las experiencias que viva durante esta etapa.

El objetivo principal de esta primera etapa de la educación es centrarse en el desarrollo integral del niño-a, permitiendo un aprendizaje activo y autónomo basado en el juego. La niña-o será protagonista de su desarrollo y el adulto le acompañará en este proceso.

Desde un punto de vista global del desarrollo, tendremos en cuenta los siguientes tres principios metodológicos:

- **Respeto hacia el niño-a.** El niño-a desde que nace es una persona activa, sensible y receptiva. Cada niño-a tiene su ritmo de desarrollo.
- **Confianza en la capacidad de desarrollo del niño-a,** posibilitando y respetando su actividad autónoma, no adelantando los procesos y aceptando que el niño-a es el protagonista de su desarrollo.
- **Garantizar la seguridad física y emocional del niño-a,** ofreciéndole las condiciones necesarias para que se desarrolle en movimiento y de un modo autónomo, siempre siendo sensibles a sus necesidades.

Así, las educadoras-es debemos estar al lado del niño-a, acompañarles en su proceso de desarrollo. El adulto debe crear contextos donde el niño-a se sienta seguro y pueda explorar, experimentar y disfrutar del juego libre de una manera autónoma.

2. 2 URTEKO HAURREN EZAUGARRIAK ETA EKINTZAK

Haur bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bereizgarri eta bakarra egiten dituenak. Bestalde, badira ezaugarri batzuk adin honetako haur guztietan errepikatzen direnak. Hauek ezagutzea eta kontuan hartzea haurra ulertzen eta bere erritmoa errespetatzen lagunduko digute. Hurrengo lerroetan hauetariko hainbat ezaugarri modu labur batean azaltzen saiatuko gara. Hauek guztiak modu global batean ulertu behar dira, hots, ezin dira bakoitza bere aldetik aztertu.

Atxikimendua: adin honetako haurrek erreferente baten beharra dute eta atxikimendu segurua behar dute lasai jolasteko, esploratzeko, beraien kontuak eta sentimenduak helduari helarazteko...

Egozentrismoa: 1-3 urte bitartean haurra subjektiboa da eta beraz ez da besteen ikuspegia kontuan hartzeko gai. Mundua egiten/eragiten du berak ulertzen duen moduan, beraien buruengan pentsatzen dute. Beraien nahiak eta beharrak ikusten dituzte, eta poliki-poliki ulertuko dute aldamenekoak ere bere behar eta nahiak dituela. Ildo beretik, jostailuak zein helduen arreta konpartitzea kostatu egiten zaie, ez dira gai oraindik horretarako. Egozentrismoa gainditzen joango dira, poliki-poliki, heldu erreferentea haurraren bidelagun izango delarik prozesu honetan.

NI-aren eraikuntza (psikismoa): haurrak bere bizitzaren lehenengo 3 urteetan NIa eraikitzen du, poliki-poliki pertsona indibiduala izaten hasten da eta ondoren, NI NAIZ eta ZU ZARA garatuko ditu, aurretik aipatutako egozentrismoa gainditzen lagunduko diotenak. Oso ohikoa da bizitzaren garai honetan haurrak *nik bakarrik* moduko esaldiak erabiltzea, berak bakarrik jan/jantzi/egin nahi duela adierazteko. Utzi diezaiogun bakarrik egiten eta izan gaitezen prozesu honen bidelagun, presionatu gabe, giro lasaian, haurraren prozesua behatuz eta eskuragai haurrak laguntza behar duenerako. Azken hau, autonomiaren garapenerako oinarria izango da.

2. CARACTERÍSTICAS DE LOS NIÑOS-AS DE 2 AÑOS Y JUEGO

Cada niño-a tiene sus propias características, las cuales le hacen único-a. Por otro lado, hay algunos aspectos que son muy comunes en los niños-as de esta edad. Conocerlos y tenerlos en cuenta nos ayudará a entender al niño-a y respetar su ritmo. En las siguientes líneas trataremos de explicar brevemente algunas de estas características que se deberán entender de una manera global, relacionadas entre sí, como todo en el mundo del niño-a.

Apego: los niños-a de esta edad necesitan un referente con el cual hayan construido un apego seguro. Así, se sentirán seguros para explorar, jugar, expresar sus necesidades y sentimientos al adulto...

Egocentrismo: En la etapa 1-3 años el niño-a es subjetivo y no es capaz de interpretar el punto de vista de los demás. Crean y actúan según sus deseos y necesidades sin tener en cuenta la de los otros-as. Poco a poco irán asumiendo que no todos-as sentimos y necesitamos lo mismo y el adulto referente acompañará al niño-a en este proceso.

La construcción del YO (psiquismo): El niño-a, durante los primeros 3 años de vida, construye el YO. Se da cuenta de que es una persona, diferenciada de los demás y con sus propias opiniones. Poco a poco, se encontrará con los demás y desarrollará el YO SOY y TU ERES, importante para superar el egocentrismo anteriormente mencionado. Es normal a esta edad que el niño-a se autoafirme con frases del tipo: yo sólo (para expresar que quiere ponerse la ropa sólo-a, comer sólo-a, ...). Es muy importante dejarle que lo haga, tranquilamente, en presencia del adulto que observará su proceso y estará disponible para cuando necesite de su ayuda. Así, irá desarrollando su autonomía.

Beldurrak: 2-3 urte bitartean oso ohikoa da beldurrak agertzea. Adb: otsoa, sorgina, ezezagunei, bakarrik geratzeko beldurra, ... Honela, adin honetan ohikoa da amets gaiztoekin hastea, beraien beldurrak eta egunean zehar bizi izandako tentsioak ere bertan islatzen baitira.

Aktibitatea eta esplorazioa: aktibitate handiko garaia da, ekintza batetik bestera erraz pasatzen dira, arruntza izan ohi da gauza bera egiten denbora asko ez pasatzea. Beraien inguruan dagoen guztia deskubritzeko eta esploratzeko sena eta kuriositatea dute.

Arreta: arreta epe motz batean mantentzeko gai dira.

Iraunkortasuna: (objektu nahiz pertsonena): pertsonak edo objektuak desagertzean, hauek ez direla itzuliko pentsatzen dute, ama/aita adibidez. Honek sinbolizatzen du gaitasunarekin zerikusi handia du, bizitzaren garai honetan garatuko dena eta bere erreferenteen ausentzia gainditzeko beharrezkoa dena.

Imitazioa: gauza asko imitazioz ikasten dituzte, aldamenekoei ikusita, erreferente diren helduen jarreretatik eta orokorrean bere ingurunean ikusi/entzuten duenetik.

Jasotzea: Adin honetan haurrak ez daude prest, helduak ulertzen duen moduan, bere jostailuak jasotzeko. Jasotzeko momentua iritsiko dela aurreratuko diogu haurrari eta momentua jolas modura proposatuko diogu, poliki-poliki barneratu eta desberdindu arte noiz den jolasteko momentua eta noiz jasotzekoa.

Elkarbanatzea: beren gauzak eta erreferentziako helduak elkarbanatzea kostatzen zaie.

Gaitasun sinbolikoaren agerpena: 1-3 urte bitartean gertatzen da. Errealitate maila gainditu dezakete. Ahozko hizkuntza agertuz doa, beren buruetan imajinatzen edo errepresentatzen hasten dira. Honi esker (hizkuntza, jolas sinbolikoa) gainditzeko dituzte egunean zehar sortzen zaizkien tentsio desberdinak, beren munduetan bizi dutena *jolasten* dute eta irtenbide desberdinak ematen dizkiote bizitutakoari.

Miedos: es normal que los niños-as a esta edad experimenten diferentes miedos. Por ejemplo: el lobo, la bruja, a los desconocidos, ... Así, a esta edad comienzan a tener pesadillas en las cuales se reflejan las tensiones y miedos vividos durante el día.

Actividad y exploración: es una época de gran actividad, pasan de un juego a otro fácilmente. Es normal que todavía no puedan dedicarle mucho tiempo a una actividad en concreto. Además, tienen curiosidad y ganas de explorar y descubrir todo lo que tienen alrededor.

Atención: tienen la capacidad de prestar atención durante períodos cortos de tiempo.

Permanencia (persona/objeto): Cuando una persona desaparece, piensan que no va a volver. Ejem: madre/padre. Esto está relacionado con la capacidad de simbolizar, la cual se desarrollará durante esta etapa de la vida y será necesaria para superar la ausencia de su referente.

Imitación: aprenden muchas cosas por imitación, observando lo que hacen los demás, iguales o adultos, y en general todo lo que ven y escuchan durante el día.

Recoger: los niños-as no están preparados para recoger tal y como lo entiende el adulto. Por eso, deberemos crear momentos agradables, sin tensión, proponiéndolo como un juego. Poco a poco irá interiorizando y diferenciando cuando es el momento de jugar y cuando el de recoger.

Compartir: les cuesta compartir los juguetes y la atención y cuidados del adulto de referencia.

Capacidad de simbolizar: esta se desarrolla entre 1-3 años. De esta manera, mediante el juego simbólico, pueden superar la realidad y todas las tensiones vividas. Jugarán a lo que viven en su realidad y le darán diferentes salidas para resolver los conflictos. Cada vez serán más capaces de expresarse oralmente, capacidad que está estrechamente relacionada con la de simbolizar.

Ezeta: helduarekiko bereizketa horretan garrantzi handia hartzen du EZ hitzak; helduaren mugen aurrean erabiltzen dute. Azken hauek ezinbestekoak dira haurrarentzat eta frustrazioa geroz eta hobeto gaintitzen lagunduko diote; ohikoa da haurrak haserretzea eta kasketak hartzea. Haurrari garbi utzi behar zaio, zer egin dezakeen eta zer ez. Muga jartzeak, segurtasun oinarri bat emango dio haurrari, egunerokotasunean sortzen diren frustrazioak kudeatzeko. Horretarako garrantzitsua da helduak ziurtasunez jokatzeko.

Haserraldiak eta jokaera agresiboak: oso ohikoak dira adin honetan (jo, bultza egitea, koskak, harramazkak...) eta arrazoi ezberdinengatik gerta daitezke:

- Inpultsua
- Ondoeza (gosea, beroa, logura, atentzio beharra, ...)
- Hizkuntza falta dutelako
- Segurtasun eza
- Arreta deitzeko
- Esperimentatzeko, nola erreakzionatzen duen beste haur batek
- Imitazioa
- Beraien burua, jostailua eta espazioa defendatzeko
- ...

Honek guztiak eragin zuzena dauka 2-3 urteko geletan ematen den **sozializazio prozesuan**. Haur gehienak garai honetan modu paraleloan jolasten dute, hau da, elkarren ondoan baina elkarrekintzarik gabe. Beste batzuk berriz (helduenak), poliki-poliki lagunekin jolasten edo jolastu nahi izaten hasten dira. Eta orduan sortzen dira zenbait arazo elkarren artean. Haurrek ez dute eguneroko gatazkatxo hauek konpontzeko modu egokia askotan eta beraz, helduok bidelagun izan behar dugu eta eredu eman, haurrak egindakoari hitza jarritz.

La negación: durante el desarrollo del YO y el autoafirmamiento, hay una palabra que tiene un especial protagonismo: NO. A menudo la utilizan ante los límites del adulto, los cuales son imprescindibles para la niña-o: poco a poco aprenderá a tolerar mejor la frustración y en este proceso a menudo se enfadará y lo expresará mediante casquetos. Hay que dejarles claro lo que pueden hacer y lo que no. Los límites les dan una base de seguridad, para poder gestionar las frustraciones cotidianas. Para eso es importante, que el adulto actúe con seguridad.

Enfadados y actitudes agresivas: son normales a esta edad expresiones tales como pegar, empujar, morder, arañar, ... y ocurren por diversas razones, como:

- Impulso.
- Malestar (hambre, sed, cansancio, necesidad de atención, ...)
- Capacidad oral poco desarrollada
- Inseguridad
- Para llamar la atención
- Para experimentar cómo reaccionan los demás
- Imitación
- Para defenderse
- ...

Todo esto mencionado anteriormente tiene consecuencias en el **proceso de socialización** dentro del aula de 2 años. A esta edad la mayoría de los niños-as juegan de un modo paralelo, cerca unos de otros, pero sin interactuar. Sin embargo, esta aula es muy heterogénea en cuanto a maduración se refiere y por eso, hay niños-as que poco a poco interactuarán más con sus iguales. Es en este momento cuando surgen diferencias de opiniones en cuanto al juego y los pequeños conflictos y a veces ocurren las agresiones antes mencionadas. Nuestro papel como adultos es saber interpretarlas y acompañar a los niños-as en estos conflictos, describiéndolos, ayudando a identificar y gestionar a los niños-as lo que sienten.

Azkenik esan, badela garrantzi handia ematen zaion eta batzuetan oso ondo ulertzen ez den beste alderdi bat: **Autonomia**. Esan beharra dago oso txikitatik hasten dela haurra bere autonomia garatzen. Honela, helduaren beharrik gabe bakarrik jolasten, esploratzen eta inizatibaz aukeratzen ikus ditzakegu. Autonomia da hau guztia, nahiz eta guk beste alderdi batzuekin lotzen dugun soilik. Bestalde, azken hauek ere agertuz doaz eta haurraren lorpenak baloratzea garrantzitsua da noski, hots: arropa eta oinetakoak jantzi/erantzi, mukiak kendu, bere higieñez arduratu, bakarrik jan,... Hau guztia gertatu dadin aukerak eman behar dizkiogu haurrari, lasaitasunean, presiorik gabe. Gainera, garrantzitsua izango da honetarako baldintza egokiak bermatzea: jantzi/erantzeko arropa/oinetako erosoak, mukiak kentzeko papera eskura, ura edateko aukerak, ...

Autonomiari buruz hitz egiten dugunean ezin dugu ahaztu **esfinterren kontrola**. Garai honetan ematen dira gaitasun honi dagokionean pausurik adierazgarrienak. Garrantzitsua iruditzen zaigu hurrengoak kontuan hartzea:

- Guk ikastolan pardela zutik aldatzea proposatzen diegu haurrei: **haurrak prozesuan aktiboki parte hartzeko** (batzuk hasi dira, pardela beraiek kentzen, komunera joaten, paper hezeekin garbitzen...).
- **Pardelaren aldaketa momentu hezitzailea eta goxoa** da, ez dauka soilik higieñezekin zerikusia eta ez da automatikoki egin behar dugun zerbait. Haurrarekin bakarka, harremana sendotzeko unea izaten da: komunikazioari, emozioei... dagokionez.
- Esfinterren kontrolaren azken emaitza pixa eta kaka komunean egitea da baina aurretik **hainbat gauza gertatzen dira prozesuan oso garrantzitsuak** direnak eta **baloratu** behar ditugunak: interesa agertzen dute komunean edo pixontzian pixa egiteko, denbora asko pasatzen dute bertan, bere gorputza garbitzeko interesa dute, arropak jaitsi eta igotzeko interesa...

Por último, y no menos importante, queremos mencionar otro aspecto al que se le da mucha importancia pero que no siempre se entiende adecuadamente: **la autonomía**. Este también es un proceso, que se desarrolla durante los primeros años de vida. Desde bien pequeños podemos observar como los bebés juegan/exploran/observan por propia iniciativa, sin necesidad de que un adulto les enseñe o señale. Esto último también es autonomía, aunque normalmente la asociemos a otro tipo de aspectos más funcionales, tales como: vestirse/desvestirse, comer solos, hacerse cargo de la higiene personal, ...Deberemos ir valorando los pequeños logros de los niños-as en todos estos aspectos, sin presionar y en un entorno lo más tranquilo posible. Para ello también será importante facilitarles en todo lo posible estas tareas mediante ropa cómoda, por ejemplo.

Dentro del proceso de autonomía personal debemos mencionar el **control de esfínteres**. Es en esta etapa de entre los 2 y 3 años donde se dan los pasos más importantes. Nos parece importante que tener en cuenta los siguientes aspectos:

- En la ikastola proponemos a las niñas-os el cambio de pañal de pie: para que **participen de forma activa** (algunos-as han empezado a quitarse el pañal solos-as, a acercarse al baño, limpiar...).
- El cambio de pañal **es un momento especial y de aprendizaje**, no se trata sólo de higiene personal. Es un momento exclusivo para compartir, emociones, para comunicarse, expresarse...
- El final del proceso del control de esfínteres es que el niño-a haga sus necesidades en el baño. Sin embargo, **ocurren muchas otras cosas en el proceso que son muy significativas y que debemos valorar**: muestran interés para hacer pis en el baño, pasan mucho tiempo en él, muestran interés por la higiene personal y también para subirse y bajarse los pantalones...

- Esfinterren kontrola **hauraren lorpena da**, poliki-poliki bere gorputza kontrolatzen duela konturatuko da eta asko gustatuko zaio. Helduon papera, honetan bidelagun izatea eta haurrak egiten dituen lorpenei hitza jartzea izango da.
- **Prozesu bat da** eta ez da egun batetik bestera lortzen. Prozesu honetan aurrerapausoak eta atzerapausoak egotea oso arrunta da.
- Haurra bere prozesuaren jabe egiten **ez du lagunduko sarien eta zigorren metodoak**. Haurraren inizatiba, autonomia, intimitatea eta denborak errespetatu nahi badira, ez da gomendagarria helduak metodo hau erabiltzea. Esaterako, haur batek gainean egitean garrantzia berezirik eman gabe, modu natural batean, aldatzea da egokiena.
- Esfinterren kontrolak **ez du zerikusirik oporrekin, festa egunekin, eguraldi onarekin**, ... Mesedez, ez planifikatu pardela kentzea eguraldiaren edo oporren baitan, haurraren gaitasunen baitan baizik.

- El control de esfínteres **es un logro del niño-a**. Poco a poco se dará cuenta de que controla su cuerpo y esto le gustará mucho. El papel del adulto es acompañar en este proceso y poner en palabras sus logros.
- **Es un proceso**, que no ocurre de un día para otro. Es normal que sufra altibajos.
- **El método de recompensas y castigos no ayuda al niño-a a hacerle participe de su proceso**. Si queremos respetar la iniciativa, autonomía, intimidad y tiempo, no es recomendable utilizar este método. Por ejemplo, si un niño-a se moja, lo más adecuado sería cambiarle de forma natural, sin darle más importancia.
- El control de esfínteres **no tiene nada que ver con las vacaciones, días de fiesta, buen tiempo, ...** Por favor, no planifiqueis quitarle el pañal según el tiempo o vacaciones, sino en base de sus capacidades.

2 URTEKO HAUREN EKINTZAK: ZERTARA JOLASTEN DA HAUR BAT 2 URTEREKIN?

Badira adin honetan oso ohikoak diren ekintzak eta jolasak. Garrantzia handikoak dira, haurrak jolasaren bitartez hainbat gauza sinbolizatzen baititu, besteak beste, bere erreferenteen falta gainditzeko lagunduko diotenak. Oso pausu garrantzitsua da eta adin honi dagokio. Besteak beste, errepikatzen diren jolasak:

- Sartu-atera
- Bete-hustu (kubetak, ontziak...)
- Ekarki-eraman: aulkitxoak, karroak
- Bota-jaso
- Bildu-sakabanatu
- Itzali-piztu
- Eraiki-suntsitu
- Ezkutatu-agertu
- Igo-jaitsi
- Oreka-desoreka
- Gerturatu-urrundu
- Objektuak ilaran jarri
- ...

Ezinbestekoa da, beraz, jolas hau bermatzen duten material eta espazioak pentsatzea eta antolatzea.

ACTIVIDAD: ¿A QUE JUEGA UN NIÑO-A DE DOS AÑOS?

Hay acciones y juegos muy normales a esta edad. Son de gran importancia ya que el niño-a, mediante estos juegos, simboliza entre otras cosas la falta del adulto de referencia. Es un paso muy importante que ocurre a esta edad. Estos son los juegos que se repiten:

- Meter-sacar
- Llenar-vaciar
- Traer-llevar
- Tirar-recoger
- Reunir-dispersar
- Apagar-encender
- Construir-destruir
- Esconderse-aparecer
- Subir-bajar
- Equilibrio-desequilibrio
- Acercarse-alejarse
- Poner los objetos en fila
- ...

Es imprescindible que preparemos contextos y espacios con materiales adecuados donde estos juegos puedan llevarse a cabo.

3. ESPAZIOAK ETA EGUNEROKO DINAMIKA

Ikastolan haurrentzat proposatzen ditugun espazio, material, jarduera eta denboraren antolaketak haurren ongizatean eta garapenean eragin zuzena dute. Honek, gure antolaketan zein espazioen etengabeko azterketa egitera behartzen gaitu, honek haurren garapen osoan (psikomotorrean, afektiboan, sozialean zein kognitiboan) eragina baitu.

3.1 ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

Jolasa, gozamina edo plazera baino gehiago da, behar bat da. Haurrentzat jolasa bere burua eta inguratzen dion mundua ezagutzeko eta barneratzeko duen lehenengo ikaskuntza-tresna da.

Baiezta dezakegu, jolasaren erabilera lehenengo urteetan, hezkuntza prozesuaren bide naturalena dela. Horregatik uste dugu, gela txokoetan antolatzeak, hau da, espazio desberdinak eskaintzeak, haurri espontaneoki jolasten eta berez ikas dezan laguntzen diola. Izan ere, haurren munduan, jolastea eta ikastea bat datoz, ezin dira banatu, haur bat jolasten dabilenean ikasten ari da.

Gure espazioetan oinarriko txoko batzuk daukagu. Hauetariko bakoitzean haurren jolaserako aberasgarria izango den materiala eskaintzen dugu. Bestalde, tarteka beste txoko batzuk ere izango ditugu, momentuan lantzen ari garen gaiaren edo hauren interesen arabera.

3. ESPACIOS Y DINÁMICA DIARIA

La organización del espacio, el material, las actividades y el tiempo que proponemos para el niño-a en la ikastola tienen una influencia directa en su bienestar y desarrollo. Esto nos obliga a analizar nuestra organización y nuestros espacios, puesto que nuestro objetivo es su desarrollo global (psicomotor, afectivo, social y cognitivo).

3.1 ORGANIZACIÓN DE LOS ESPACIOS

El juego en la edad infantil es más que una manera de pasar el tiempo; es una necesidad. Mediante el juego el niño-a descubre el mundo que le rodea.

Podemos afirmar que en los primeros años de vida el juego es el proceso natural mediante el cual los niños-as aprenden. Creemos por esto que debemos organizar nuestros espacios en diferentes rincones que posibiliten el juego espontáneo del niño-a y su aprendizaje autónomo. De hecho, en el mundo del niño-a no podemos separar jugar de aprender, puesto que cuando el niño-a juega, aprende.

Nuestros espacios están divididos en unos rincones básicos en los que ofrecemos material que creemos enriquecen el juego espontáneo del niño-a. Por otra parte, también les propondremos a lo largo del curso otros rincones relacionados con los temas propuestos tanto por los educadores-as como por los niños-as.

3.1.1 TXOKOAK:

Jolas sinbolikorako txokoa:

Txoko honek haurraren sozializazioaren garapenerako beharrezkoak diren elementuez baliatzeko bidea ematen digu, hala nola, familiaren imintzioa, rolak, ekintzak, pertsonen arteko harreman mota ezberdinak, jokabide mota egokiak...

Funtzio sinbolikoak eragin handia du garapen intelektualean, baita garapen afektiboan ere.

Materiala:

- Panpinak, ontziak, mota desberdinetako oihalak, arropak, mozorroak, ...
- Aukera asko ematen dituen baina funtzio zehatzik gabeko materiala: fruitu lehorrak, lokotsak, hostoak, makiltxoak, ...

Adierazpen plastikorako txokoa:

Gune honetan komunikaziorako aukera desberdinak eskainiko dira. Sormenari, adierazpen grinari eta komunikatzeko beharri eskaintzen zaion gunea da. Haurrari bere emozioak kanporatzeko eta bideratzeko adierazpen plastikoaren erabilera eskura jarri nahi zaio manipulazio eta esperimentazioaren bidez. Prozesuari emango zaio garrantzia eta ez emaitzari.

Materiala:

- Plastilina, argizarizko margoak, tenpera, orriak, txotxak, kola, errotulagailuak, ingurune naturalak eskaintzen dizkigun materialak, berrerabiltzeko materiala, tresna desberdinak, ...

3.1.1 LOS RINCONES

El rincón del juego simbólico

En este rincón el niño-a se encontrará con elementos que le ayudarán en su socialización, a imitar momentos vividos en casa, con su familia. Adoptará diferentes roles dentro del grupo que le ayudarán en su desarrollo afectivo.

La función simbólica es de gran importancia tanto para el desarrollo intelectual como para el afectivo.

El material que se encontrará en este rincón será:

- Muñecas, tarros, cestas, ropa, diferentes tipos de telas, disfraces, ...
- Material sin una función determinada pero con muchas posibilidades como: conchas, frutos secos, hojas, palitos, corchos, ...

El rincón de la expresión plástica

En este rincón el niño-a tendrá múltiples posibilidades para expresarse y dar pie a su creatividad. Así, el niño-a expresará sus emociones y podrá canalizarlas por medio de la manipulación y la experimentación. Por lo tanto, lo verdaderamente importante será el proceso creativo y el desarrollo de éste y no la producción final.

Material:

Plastilina, pinturas de cera, témpera, rotuladores, papel, material del entorno natural, material para reutilizar, ...

Liburutegia:

Hizkuntza adierazpenak bideratzeko, eta hizkuntza idatziarekin harremanetan jartzeko gunea izango da. Hizkuntza komunikazio tresna izanik hauek garatzeko erabilera desberdinak landuko dira, ahozko nahiz gorputzeko lengoaiaren bitartez. Modu berean irakurtzeko zaletasuna suspertzen lagunduko duen jarduerak bideratuko dira.

Materiala:

- Testu mota desberdinak: ipuinak, aldizkariak, errezeta liburuak, egunkariak...
- Argazki albumak: familiakoak, ikastolan eta hemendik kanpo bizitako argazkiekin osatutakoak, ...
- Txotxongiloak
- Hiztegi txartelak, gelako izenen txartelak, ...

Liburutegian goxo egoteko eta atsedena hartzeko espazio bat ere badago, haurrak hala behar duenean bertara jo dezan.

Jostailu txokoa:

Txoko honek honako hauetan garatzen laguntzen du: pentsamendu logikoa, arreta, oroimena, asoziazio eta pertzepzio gaitasunak, espazio eta denboraren egitura, koloreen ezagutza, koordinazio ikus-motorra eta aspektu motorren garapenean. Era berean, sormena eta kontzentrazioa garatzen laguntzen du ere.

Materiala:

Puzzleak, tamaina eta mota desberdinetako eraikuntzak, enkajeak, animaliak, kotxeak, mahai jolasak, ...

Biblioteca

El objetivo de este rincón es ayudar en el desarrollo de la expresión oral del niño-a. Así mismo, el material que se ofrece en este rincón le ayudará a descubrir el lenguaje escrito y alimentará su interés por la lectura.

Material:

- Diferentes clases de textos: cuentos, revistas, libros de recetas, periódicos, ...
- Álbumes de fotos: de la familia, de diferentes experiencias vividas en la ikastola y fuera de ella, ...
- Marionetas
- Diferente material escrito: tarjetas con sus nombres y la de los compañeros-as, palabras que les interesen, letras, material para escribir, ...

También se encontrarán con un espacio agradable para poder descansar.

El rincón de los juguetes

